

2019

maiatza/ekaina/uztaila/abuztua



Huarte

# II Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA  
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO

Calvario 2  
31620 Uharte. Nafarroa  
t. 948 361 457 | [centrohuarte.es](http://centrohuarte.es)

Finantziatua



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

LG NA 2883-2017

hablarenarte:



la caracola<sup>®</sup>  
ASOCIACION CULTURAL



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala



PUNTO DE VISTA



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea  
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra  
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

Nafarroako Kirolaren eta  
Gazterien Institutua




Instituto Navarro de  
Deporte y Juventud



Servicio Navarro de Salud  
e Osasunbidea

**maiatza  
ekaina  
uztaila  
abuztua**



# Ekoizpen zentroa

Uharte Zentroa ekoizpen, esperimentazio eta ikerketa artistikorako zentro bat da. Komunitatearen esku jartzen ditu hainbat baliabide material, ekonomiko eta heziketa aukera. Esparru desberdinetako artistek lanerako lekua izan dezakete: arte plastikoak, eszenikoak, ikusikoak, soinu artea edo kategoria batean sartzen ez diren diziplinak garatzeko aukera dago bertan.

Sorkuntza artistikoa eta herritarren arteko elkarrizketa sustatzen da publiko osoari irekitako jarduera programaren bidez.



## Ekoizpen zentroaren ordutegia

Astelehenetik, ostiralera 10:00etatik, 20:00etara

## Publikoari irekitako ordutegia

Ostiraletan 17:00etatik, 20:00etara

Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik, 14:30era

## Udako ordutegia

Uztaila eta abuztuan ekoizpen zentro gisa besterik ez da irekitzen

Uztailaren 5etik, 14ra itxita

Uztailaren 15etik, 28ra, astelehenetik, ostiralera 10:00etatik, 15etara

Uztailaren 29tik, abuztuaren 29ra, astelehenetik, ostiralera 10:00etatik, 20etara

**[www.centrohuarte.es/eu](http://www.centrohuarte.es/eu)**

# Irekian

Irekian, publiko osoari zuzendutako jarduera eta ekitaldiei esaten diegu Uharte Zentroan, ez dute izen-ematerik behar, eta helburua, arte garaikidea herritarrei gerturatzea da.

# Aperitifak

Hilero, proposamen eta artista desberdin batekin egiten den topaketa informal eta ludikoa. Giro lasaian, parte-hartzaileek arte garaikideko proposamenetara gerturatzeko aukera dute. Uharte Zentroaren beheko solairua, artistarekin elkarrizketan aritzeko, dastatzeko, asmatzeko, ezagutzeko edo probatzeko leku bihurtzen da.

---

Publiko guztientzat doako jarduera.

12:30ak eta 14:00ak bitartean, uztailean eta abuztuan izan ezik.

---

## ***To homeland, with love***

Andrea Olaitz

**Maiatzak 25**

---

## ***Maneras de ver***

Becky Siegel / Kon moción

**Ekainak 1**

# Habitación

Habitación erakusketa proiektu ba da. Gutxienez bi artista, zortzi astez gune honetan “bizitzen” egoten dira eta egiten duten prozesuaren arrastoa uzten dute. Erakusketa hau asteburuetan jendearentzat zabalik dago, bisitariak, ohikoa ez den moduan egon daitezke prozesu artistikoekin. Lantegia eta erakusketa nahasten dira gune honetan eta artistek, ikusleei, haien lana aurrera eramaten laguntzen dieten interesak edo bultzadak nondik datozen ezagutzeko aukera ematen diete.

---

Ostiral arratsalde batean, aurkezpen-modu gisa, publikoarekin bildu ohi dira artistak proiektua partekatzeko asmoz.

Habitación, publikoari irekita dohainik egoten da ordutegi honetan:

Ostiraletan 17:00etatik, 20:00etara

Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik, 14:30era

---

## ***Zazpi-Siete***

Amaia Gracia / Andrea Ganuza / David Mutiloa

Estitxu Arroyo / Marisa Mantxola / Txuspo Poyo / Xabier Erkizia

## **Martxoak 15-Maiatzak 5**

Txuspo Poyoren Izaro filma ostiraletan 18:00etan eta larunbata, igande eta jaiegunetan 12:00etan proiektatzen da.

---

## ***Got lost in the game***

Blanca Ortiga / Miguel Alejos

## **Maiatzak 10-Ekainak 30**

Aurkezpen publikoa:

**Maiatzaren 31 / 18:30**



# Akanpada

Akanpada publiko guztientzako jarduera da eta Habitación-en artistak garatzen ari diren prozesura modu aktiboan hurbiltzeko aukera ematen du. 45 minutuko akanpandan, istorioak kontatuko ditugu, gorputzak mugitu, harremanak sortu eta taldean proposamen plastikoak diseinatuko ditugu.

---

Doako jarduera publiko guztientzat.  
12:00etatik 13:00etara, hilean behin.  
Jarduera euskaraz eta gaztelaniaz egiten da.

---

## ***Got lost in the game***

Blanca Ortiga / Miguel Alejos

**Maiatzak 11 eta ekainak 15**

# Totemak kalera!

Totem-ak Enther This eta Orekari Estudio kolektiboek 2017an Edukiontzia Birpentsatuz egoitzan sortutako erabilera anitzetara moldagarriak eta konfiguratu daitezkeen modulu batzuk dira. Totemen aktibazioa Uharteko San Joan plazan egiten diren jarduera batzuen bidez egiten da, Uharte Zentroan lanean ari diren artistekin eta herriko kolektiboekin batera antolatutako lantegiak edo proiektzioak izan ohi dira.

---

## **Proiektzioa eta tailerra**

Peru Galbete

**Uztailak 31 / 19:00-22:00 / Uharteko San Joan enparantzan**

---

## **Proiektzioa eta tailerra**

Maite Redondo

**Abuztuak 21 / 19:00-22:00 / Uharteko San Joan enparantzan**

# Publikoari irekitako beste jarduera batzuk

Erakusketa

***Emen hetan  
witchy bitchy  
ding dong  
it's sabbat time***

Maia Villot de Diego / Bernard Hausseguy / Béranger Laymon

**Martxoak 29-Maiatzak 12 / Publikoari irekitako ordutegian**

Erakusketa honetan Sorginak - Brujas egoitzaren emaitzak erakusten dira. Bertan, hiru artistek Delance-ko prozesuko iturri historikoetatik abiatuta, sorginkeriarekin lotutako irudien errepertorioarekin lan egiten dute (fantasiatzko akelarrea, folklorea, ekofeminismoa ...)

---

Erakusketaren inaugurazioa

***Iturriaren koloreak***

**Maiatzak 15 / 9:30 / Lizarrako Remontival Ikastetxean**

Eskola Lurraldea 2018-2019 deialdian hautatutako proiektua losu Zapataren partehartzearekin.

Joan behar duzula baieztatu helbide honetan: [cpremontival@educacion.navarra.es](mailto:cpremontival@educacion.navarra.es)

---

Proiektzioa

***Lost landscapes Pamplona***

**Maiatzak 16 / 18:00**

Rick Prelingerrekin burututako tailerreko parte-hartzaileek Punto de Vista Jaialdiarekin elkarlanean egindako filmaren proiektzioa.

---

Komisariotza-ikerketa egoitzaren aurkezpena

***Querella contra la historia: La urgencia del texto como imagen***

Itsaso Otero

***EIPEP. Escuela Internacional del paisaje en el paisaje***

Andrés Vial

**Ekainak 20 / 18:00**

---

Zeharkako estetikak egoitzaren aurkezpena

***No man's land***

alfonso borragán

**Ekainak 22 / 12:00-14:00 / San Andres errota, Atrarrabia**

# Prestakuntza

Uharte Zentroan artistek, irakasleek, ikasleek eta gainontzeko publikoek bizipenetan ikasteko aukera izatea nahi dugu, horretarako, hainbat prestakuntza-programa eskaintzen dira.

! Izen-emateak Uharte Zentroko webgunearen bidez.

# Zero azpitik

Uharte Zentroak komunitate artistikoari zuzendutako prestaketa eskaintza osatzen duen ikasketa programa da ZERO AZPITIK. Kurtsoan zehar egingo diren saio multzo gisa eratu dago, egun, artearen eszenan dauden gonbidatuek garatuak izango dira saioak, bertan, profesional hauek lantzen dituzten gaien inguruko teoria eta praktika uztartuko direlarik.

---

! Izena emateko epeak irailean eta lantegi bakoitza hasi baino hilabete lehenago irekiko dira.

---

## ***L.I.D.A.R.= P. D. F+(LIDAR= Paisaia digitala fotografikotik haratago)***

LIDAR (Laser Imaging Detection and Ranging)teknologia erabiltzen duten 3D eskanerrekin lan egiteko eta honekin egin daitezkeen lan grafikoetara gerturatzeko lantegia.

Jabier Villareal / Unai Requejo

### **Maiatzak 10-12**

**Maiatzak 10 / 15:30-19:30**

**Maiatzak 11 eta 12 / 10:30-14:30**

Izen-ematea: 15 €

---

## ***Guztia gertutik sentitu***

Hazitegia lantegia

María Sanchez

### **Ekainak 21-23**

**21 / 16.00-19.00 / Oteiza Museoa**

**22 / 10:00-14:00 eta 16.00-19.00 / Oteiza Museoa**

**23 / 10:00-14:00**

Doako izen-ematea.

---

## ***Eszenaratzea (multimedia instalazioen lantegi bat)***

Paloma Navares

### **Abuztuak 6- 8 / 11.00-14.00**

Izen-ematea: 15€

# Gorputz laborategia

Hiru hilabetean behin egiten den eta gorputz-praktikarekin zerikusia duen lantegi bat da. Edizio bakoitzean, artista bat gonbidatzen da eszenarekin zerikusia duen kontzeptu edo teknika baten inguruko lantegi bat diseinatzeko.

Publiko osoari zuzendutako jarduera, aurretik esperientzia izan edo ez. Haur eta gazteei zuzendua ere badago. Haurrek heldu batek lagunduta etorri beharko dute

---

! Izena emateko epea lantegia baino hilabete lehenago irekiko da.  
Izen-ematea: 5€

---

## ***Irudietan Mugitu***

Estitxu Arroyo

**Maiatzak 18 larunbata / 11:15-14:15**

---

## ***Ekintzak, serieak, espazioak***

Elena Albert

**Abuztuak 13 asteartea / 11:15-14:15**

# Ilustrazio laborategia

Hiru hilean behin autoedizioari lotutako tailer bat. Edizioarekin lotutako teknika edo kontzeptu baten inguruan aritzeko, artista bat gonbidatzen da.

Publiko osoari zuzendutako jarduera, aurretik esperientzia izan edo ez. Haur eta gazteei zuzendua ere badago. Haurrek heldu batek lagunduta etorri beharko dute.

---

❗ Izena emateko epea lantegia baino hilabete lehenago irekiko da.

Izen-ematea: 5€

---

## ***Lagun errabia***

Andrea Ganuza

**Ekainak 8 larunbata / 11:15-14:15**

---

## ***Bestiario sekretua***

Miriam Cámeros

**Abuztuak 20 asteartea / 11:15-14:15**

# Musika gogoangarriak

Christian Fernández Mirón

**Maiatzaren 7-10 / 16:00-20:00**

Hablarenartekin elkarlanean garatutako proiektuan ahozko transmisioaren inguruko laborategi bat egingo da, bertan parte hartuko duten emakume helduen oroitzapenak, kontakizunak eta abestiak balorean jarriko direlarik.

Topaketa hauetatik abiatuz, musika gogoangarrien inguruko artxibo bat osatuko da, ahozko transmisioak eta abesti herrikoiek memoria kolektiboan duten garrantzia azpimarratuz.

---

Doako Izen-ematea.

---

## Jabego intelektualaren inguruko aholkularitza

Jabego intelektualaren eta beste ukiezin batzuen inguruko aholkularitza juridikoa dohainik, Intangia elkartearekin elkarlanean. Zerbitzua hilabeteko ostegun batean eskaintzen da Uharte Zentroan.

---

❗ Ezinbestekoa da hitzordua eskatzea [info@intangia.es](mailto:info@intangia.es) helbidean edo 948 321 399 telefono zenbakian. Doakoa.

---

**Maiatzak 23 / 17:00-20:00**

**Ekainak 13 / 17:00-20:00**



# Ekipamenduen azalpena

Uharte Zentroko ekipamenduak eta baliabideak ezagutzeko eta erabilera arauak eta funtzionatzeko modua ikasteko bisitak egiten dira. Hilabeteko 15aren hurrengo astelehenean izan ohi dira.

---

**Maiatzaren 20 / 16:00**

**Ekainaren 17 / 16:00**

**Abuztuaren 19 / 16:00**

## Lantegi teknikoa

Urtero hiru lantegi tekniko eskaintzen dira arlo guztietako artistak prestatzeko. Helburua, artistak baliabide ezberdinekin hornitzea da proiektuak garatzeko estrategia eta lan-metodologiak ezagutaraztea.

---

📌 Izena emateko epea lantegia baino hilabete lehenago irekiko da.

---

### ***Ikusentzunezko Irudia***

Jerónimo García-Fresca / Javier Rodríguez

**Ekainaren 10etik 14ra / 16:30-19:30**

Bideo teknologiak, Uharte zentroko bideolabak eskaintzen dituen sormen aukerak ezagutzeko

Izen-ematea: 20 €

# Hezkuntza

Uharte Zentroak arreta berezia jartzen dio hezkuntza-komunitatea eta arte-aniztasuna lotzeko prozesuak sortzeari, beti ere, hezkuntza-aukera berriak irekitzea dakarren elkarrizketa eraldatzaitetik abiatuta.

Nafarroako hezkuntza formaleko ikastetxeetako ikasleekin eta irakasleekin zuzeneko lan-ildoak ditugu, baita irakasleentzako prestakuntza-eskaintza ere.

Proposamen guztiak artistekin elkarlanean egiten dira, eta, besteak, beste, ikusizko kultura, hezkuntza-metodologia desberdinak edo arte-teknikak lantzen dira.

! Izen-emateak Uharte Zentroko webgunearen bidez.

# VACA VII (MARRUKA) proiektua

Aurtengo edizioaren protagonista soinua da. Gure prozesuak kolektibo gisa ikusgai jartzen ditugu VACAMURRU erakusketa-eremuan, aldi berean, gonbidatutako artistekin batera saioak egiten ditugu, bai eta ikasleek beren ikasgeletan parte hartzen duten hezkuntza-prozesuak tutorizatzeko banakako saioak ere. Hezkuntza-maila guztietako 21 irakaslek parte hartu dute.

---

📌 Izen-emate berriak 2019ko irailean

---

## A3-hezkuntza proiektua

Hezkuntza formalaren barruan edozein hezkuntza-mailara irekita dagoen deialdia da. Horrekin, hezkuntzaren eta tokiko artearen artean ezagutza trukatzea bilatzen da, biak aberastea ahalbidetuko duena. Ikastaro honetan 33 proiektu egin ditugu, talde parte-hartzaile bakoitzeko bat. Ikasturte honetako proiektuen artean honakoak daude:

### ***Catalina de Foix ikastetxeko 6. lehen hezkuntzako***

Zer ulertzen dugu muga gisa? Mugen aldakortasunari buruz hausnartzen dugu, bai eta muga-mota ezberdinei eta horien eragin geopolitikoei buruz ere. Mugak gurutzatzean izandako esperientziei buruz hitz egiten dugu. Bi zinemagileren laguntzaz, Maddi Barber eta Marina Lameiro, zinema-muntaia zer den ikasi dugu, 'Kuleshov efektua' eta 'geografia sortzailea' ren bidez. Mugak abiapuntu hartuta, narratiba ezberdinak asmatu eta film labur bihurtu ditugu.

### ***Mendigoti ikastetxeko haur hezkuntzako 3. maila***

Hainbat emozioz ukitutako lerroak aurkitu ditugu: lerro lasaiak, lerro haserretuak, lerro tristeak eta lerro lotsatiak. Horiekin musikaren erritmoa mugitzen eta dantzatzen duten emozio jantziak sortzen ditugu. Peru Galbete musikariak ahotsaren eta beste instrumentuen bidez, emozioak transmititzen laguntzen digu, eta inoiz ikusi ez genituen musika-tresnak ezagutu ditugu, esaterako, 'Txarangoa'.

---

📌 Izen-emate berriak 2019ko irailean

---

# Eskola lurraldea 2018-19

## ***“Iturriaren Koloreak”. Lizarrako Remontival I.P.***

Nafarroako ikastetxeei zuzendutako deialdi honek, eskola eta lurraldea harreman lantzen duen urte osoko proiektu bakarra sustatzen du. Ikasturte honetan Lizarrako Remontival ikastetxe publikoaren “Iturriaren Koloreak” proiektua hautatu da. 1856.urtean eraikitako Remontival iturriaren berreskuratze kolektiboa. Eskolako D eredua buru, hezkuntza komunitate osoaren eta herriko instituzio desberdinen laguntza jaso du. Deialdiaren oinarrian sare-lana dago, auzolana, prozesu parte-hartzaileak oinarri harturik, ezagutzak eta kultura sortzeko asmoa. Proiektuaren amaierako fasearen garapenerako –losu Zapata artista iruindarraren parte hartzea izan du proiektuak.

Bukaerako erakusketa maiatzaren 15ean mustuko da eskolan bertan.

## **Nuestro Patio**

Uharteko Virgen Blanca IPko lehen hezkuntzako 2. mailarekin garatzen den proiektua, talde-ikerketa artistiko gisa planteatzen da, eta bertan, tresna plastikoen, ikusizko tresnen eta gorputz-tresnen bidez ikasleek jolastokian egiten dituzten erabileretan sakondu dute. Ikasturte honetan, gure gorputzak patioan ikusi ditugu, eta, horri esker, zaurietan finkatu ditugu hausnarketarako eta metafora lantzeko gune gisa.



# Egoitzak

Uharte Zentroak egoitza artistikoan hartzen ditu artistak, ikerlariak, komisarioak edo sorkuntza prozesu bati lotuta dauden pertsonak denbora jakin batean proiektuak garatu ditzaten. Egoitza horretan, hausnarketarako, ikerketarako edo aurkezpenak eta ekoizpenak egiteko denbora eskaintzen zaie. Egoiliarrek, zentroan ematen duten denboran modu ezberdinetan partekatzen dute haien ikerketa. Honek beste komunitate batekin harremana izateko, pertsona berriak ezagutzeko, material desberdinak erabiltzeko edo esperientzia berriak izateko aukera eskaintzen die.

Egoitza gehienetarako sarrera deialdi bidez egiten da. Batzuk programa propioak dira eta beste batzuk zentro, entitate, festibal edo antzekoekin elkarlanean, helburua, esperimentazio eta ikerketa artistikoa da.

# Deialdi irekiak

## Maiatza

*Mapamundistas / Ispilua*

Itxiera, maiatzak 23

---

*Iruñea: hiria ekosistema gisa*

Itxiera, ekainak 1

## Ekaina

*Ospitaleetan esku-hartze artistikoak*

Itxiera, ekainak 6

---

*Arte gaztea egoitzak*

Itxiera, ekainak 14

---

*Arte gaztea topaketak*

Itxiera, ekainak 24

---

*Zeharkako estetikak*

Itxiera, uztailak 1

# Abian diren egoitzak

**Zeharkako estetikak. Aisialdiko ekosistemak**

**2019ko ekainak 3-23**

alfonso borragán

***No man's land***

---

**Komisariotza ikerketa**

**2019ko maiatza-ekaina**

Itsaso Otero

***Querella contra la historia: La urgencia del texto como imagen***

---

Andrés Vial

***EIPEP. Escuela Internacional del paisaje en el paisaje***

---

**DNA Festibala**

**2019ko ekaina**

Carmen Larraz / Eléctric Body

---

**Postontzi irekia**

**2019ko maiatza-abendua**

Iruñea Nola, Radio Reymi / Nola Critical Bass / Maslow Industries

---

**Agente artistikoen mapeoa**

**2019ko ekaina-urria**

pulpa celeste Kolektiboa

***Erraiak***

---

**Arte gaztea egoitza**

**2019ko abuztua**

---

***Iruña: hiria ekosistema gisa***

**2019ko uztaila-iraila**

---

**Ospitaleetan esku-hartze artistikoak**


**2019ko abuztua-iraila**

---

***Mapamundistas / Ispilua***

**2019ko uztaila-iraila**





# Egonaldiak

Uharte Zentroak, lan espazioen aldi-baterako uzte-programa bat eskaintzen du arte garaikidean lanean ari diren artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko.

Deialdia modu jarraian eskaintzen da eta edozein arte diziplinari irekia dago. Programa honekin elkarrekintza eta topaketa espazio bat sortzea bilatzen da, non, eragileak eta haien proiektuak elkarren ondoan garatu daitezke Uharte Zentroaren testuinguruan.

! Deialdi irekia eta jarraitua.

Izen emateak [www.centrohuarte.es/eu/egonaldiak-espazio-uzteak](http://www.centrohuarte.es/eu/egonaldiak-espazio-uzteak) webgunean.

# Egonaldi puntualak

Formalizazio edo ekoizpen fasean dauden eta zentroko baliabide teknikoak (AudioLab, BideoLab, PrintLab, Gorputz-Laborategia) behar dituzten proiektu artistikoen unean-uneko beharrak betetzeko egonaldia.

## Aldi baterako egonaldiak

Artistei eta ikertzaileei zuzenduta daude, beren lana, gehienez, urtebeteko epean, Uharte Zentroko instalazioetan garatzeko. Deialdi irekia eta jarraitua.

### **Aldi baterako egoitza egiten ari diren artistak:**

Beatriz Tainta

David Mutiloa

Naia mira

María Jiménez

Peru Galbete

Katixa Goldarazena

Silvia Echandi

Andrea Ganuza

Aitor Razkin

Aravindhan Mudaliyar

Ghislaine Verano

Ainhoa Unzue

Egonaldiak egiten dituzten artistek, haien lanaren lagin bat

**[www.centrohuarte.es/blogh](http://www.centrohuarte.es/blogh)** webgunean uzten dute.

# Nola iritsi Uharte Zentroan

Zentroa Uharten (Nafarroa) kokatua dago, Iruñetik 4,5 kilometrora.



## **Villavesa zerbitzua**

4H linea (Uharte)



## **Autoz**

Sarrera: PA30etik, NA-4200 bidea hartu Kalbario kalea 2 arte edo Atarrabiatik NA-4200tik barrena.

Zentroaren azpiko aldean autoentzako aparkaleku estalia dugu.



## **Txirrinduz**

Iruñeko erdigunetik, Arga ibai-ertzeko pasio atsegina bat egin dezakegu. 20 bat minutu hartzen ditu eta ibilbide desberdinak daude:

Nafarroa Behera etorbidetik, eskuinera jo dezakegu Egues Ibarra karrikarantz, Sarriguren erreperidera iristeko, Madril karrikara egin behar dugu gero Argako pasealekura iristeko eta Zentroarekin aurkitu arte jarraitu.

Txantrea auzotik barrena Mendigorria karrika zeharkatu behar dugu, ondoren Ezkaba karrika Atarrabiara iritsi arte, Fermin Tirapu karrika jarraituko dugu bertan, Arga ibaiaren pasealekura iritsi eta Zentroarekin aurkitu arte jarraitu.

Txirrinduen aparkalekua dugu Zentroaren barnealdean.



## **Trenez**

Iruñeko tren geltokitik bi Villavesa hartu beharko ditugu. 17. linea Merindadeak plazara arte eta hemendik 4H linea Uharte arte.